

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala**



**Boletín
Oficial de
Gipuzkoa**

12

2021eko urtarrilaren 21a, osteguna

1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1/2021 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, lan etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura 2021ean aplikatuko zaizkien atxikipen portzentajeak onartzen dituena.

COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko 2020ko martxoaren 14an alarma egoera deklaratu zenetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga arloko hainbat neurri ezohiko eta presako hartu ditu krisi horren eragin negatiboa arintzeko, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak zerga alorrean aitortzen dizkion eskumenak baliatu ditu.

Azken zerga neurriak abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Araua onetsi ditu, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoak. Izan ere, xedapen horrek, alde batetik, luzatzen ditu nagusiki bi foru dekretu-arau hauek direla medio onetsi diren neurri gehienak: maiatzaren 5eko 2/2020 Foru Dekretu-Araua, COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituena, eta maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Araua, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurriei buruzkoa. Eta bestetik, neurri osagarriak ere ezartzen ditu, presaz aplikatzeko.

Azken horiekin lotuta, eta beren lan egoera pandemiagatik ukitua ikusi duten zergadunen tributazioa ez zigortzeko ideia nagusiarekin, 2020 eta 2021eko zergaldietarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren esparruan hainbat doikuntza sartu dira autolikidatzeko betebeharrari dagokionez. Zehazki, lan etekin gordinetarako ezarrita dagoen muga, haren kopurutik behera egonez gero autolikidatzeko obligaziotik salbuesten duena, 12.000 eurotik 14.000 eurora handitu da.

Araudiaren aldaketa horrek beharrezko egiten du lan pertsonalaren etekinei 2021ean aplikatuko zaizkien atxikipen portzentajeen taula eguneratzea, ekitaldi horretan autolikidatzera behartzen duten muga berrietara egokitzeko. Horren ondorioz, atxikipena egitera behartzen duen gutxieneko muga urtean 11.860,01 eurokoa izatetik 14.000,01 eurokoa izatera pasatzen da.

Bereziki aipatu behar da emakume gehiago dagoela lan etekinen tarte horretan. Beraz, foru dekretu honetan jasotakoaren arabera atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharratik

salbuesteak eragin handiagoa du emakumeengan gizonezkoengan baino. Hori dela eta, salbuespenak genero inpaktu positiboa du.

Azaldutakoagatik, foru dekretu honen xedea da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen taula berria onestea, 2021eko ekitaldi fiskalean lortzen diren lan etekinei aplikatzeko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari beste xedapen gehigarri bat eransten zaio, hamalagarrena, hain zuzen honela dioena:

«Hamalagarren xedapen gehigarria. Lan etekinei 2021ean aplikatuko zaizkien atxikipen portzentajeen taula orokorra.»

100. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean, lan etekinei aplikatuko zaizkien atxikipen portzentajeen taula orokorra honako hau izango da:

Urteko etekina / Importe rendimiento anual (€)		Ondorengo ahaideen kopurua / Número de descendientes						
Behe muga / Desde	Goi muga / Hasta	0	1	2	3	4	5	Gehiago / Más
0,00	14.000,00	0	0	0	0	0	0	0
14.000,01	14.690,00	5	3	0	0	0	0	0
14.690,01	15.420,00	6	4	2	0	0	0	0
15.420,01	16.310,00	7	5	3	0	0	0	0
16.310,01	17.540,00	8	6	4	0	0	0	0
17.540,01	18.970,00	9	7	5	2	0	0	0
18.970,01	20.500,00	10	8	7	3	0	0	0
20.500,01	21.840,00	11	10	8	5	1	0	0
21.840,01	23.340,00	12	11	9	6	3	0	0
23.340,01	25.080,00	13	12	10	8	4	0	0
25.080,01	27.250,00	14	13	11	9	6	2	0
27.250,01	29.790,00	15	14	13	10	8	4	0
29.790,01	32.880,00	16	15	14	12	9	6	0
32.880,01	37.070,00	17	16	15	13	11	8	0
37.070,01	40.210,00	18	17	16	15	13	10	3
40.210,01	43.320,00	19	18	17	16	14	12	5
43.320,01	46.760,00	20	19	18	17	15	13	7
46.760,01	50.350,00	21	20	20	18	17	15	9
50.350,01	54.520,00	22	21	21	19	18	16	11
54.520,01	57.900,00	23	22	22	21	19	18	12
57.900,01	61.740,00	24	23	23	22	21	19	14
61.740,01	66.140,00	25	25	24	23	22	20	16

Urteko etekina / Importe rendimiento anual (€)		Ondorengo ahaideen kopurua / Número de descendientes						
66.140,01	71.180,00	26	26	25	24	23	22	17
71.180,01	76.720,00	27	27	26	25	24	23	19
76.720,01	81.370,00	28	28	27	26	25	24	20
81.370,01	86.760,00	29	29	28	27	27	25	22
86.760,01	92.930,00	30	30	29	29	28	27	23
92.930,01	100.050,00	31	31	30	30	29	28	25
100.050,01	107.900,00	32	32	31	31	30	29	26
107.900,01	116.860,00	33	33	32	32	31	30	28
116.860,01	127.460,00	34	34	33	33	32	32	29
127.460,01	139.130,00	35	35	34	34	33	33	31
139.130,01	152.870,00	36	36	36	35	35	34	32
152.870,01	168.970,00	37	37	37	36	36	35	33
168.970,01	188.840,00	38	38	38	37	37	36	35
188.840,01	209.480,00	39	39	39	38	38	37	36
209.480,01	Hortik aurrera / En adelante	40	40	40	39	39	39	37»

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 19a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jokin Perona Lerchundi. (301)